

# txintxarri



## Pasioa ogibide bihurtu du Mikel Martijak

Herritarra SD Eibar taldeko idazkari teknikoa da. / 6-9

SD EIBAR

## Aurkikuntza berriak

Giza-aztarna gehiago topatu ditu Islada Ezkutatuak taldeak Txaldataxurren /2

Santa Ageda bezperan hainbat talde ariko dira koplatan herrian barrena / 5

Trinko taldeko triatletek denboraldi berria prestatzeko lehenengo irteera egingo dute / 10

- Autoikaskuntza mintza-saioarekin
- Euskarazko agiriak 1, 2 eta 3/EGA
- Euskalduntzeko maila gutziak
- Ordutegian malgutasuna

Muntteri AEK euskaltegia  
Geltoki kalea, 17, behea • 20160 Lasarte-Oria  
943 37 28 63 - lasarte@aek.eus  
www.muntteri.blogspot.com.es

aek

euskara praktikoa

100%  
AFEKTIBO

Eman izena







Giza-gorpuzki baten aztarna gehiago bistaratu zituzten larunbatean Txaldataxur gainean. TXINTXARRI

## Giza-gorpuzki gehiago Txaldataxur gainkaldean

Islada Ezkutatuak taldeak Aranzadiren laguntzarekin, giza-aztarna gehiago topatu ditu Txaldataxurreko gainean; gorpu baten hezurak. Hogei gorpu inguru eduki ditzakeen hobi bat ere egon daitekeela susmatzen dute, baina oraingo ez dute topatu.

Iñigo Gonzalez

Duela bi aste iragarri zuen Islada Ezkutatuak taldeak. 36ko gerrako tresneria gehiago topatu zuten Txaldataxurren, eta horrek eraman zituen pentsatzera gorpuzkin gehiago egon zitezkeela. Ez dira erratu. Aranzadi Zientzia Elkartearekin bertara joan ziren larunbat goizean, eta giza-aztarnak bistaratu dituzte, beste

gorpu batenak. Gorputz behelaldekoak ziren hezur gehienak: aldaka eta hanketakoak. Besoetako baten bat ere topatu zuten. Azaldu zuten baita ere gorpu hori buruz behera izan zela lurperatua.

Islada Ezkutatuak taldeko Joxe Agustin Muguruzak eman zizkien azalpenak Txaldataxurrera bertaratu zirenei. "Susmoa

daukagu hemen inguruan egon daitekeela hobi moduko bat, hogeit bat gorpuren aztarnekin", jakinarazi zuen. Larunbatean, ordea, gorpu bakar baten giza-aztarnak topatu zituzten: gorputzaren behelaldeko hezurak, aldaka eta hanketakoak. Paco Etxeberria forenseak zehaztu zuen gainontzeko hezurak desaginda zeudela,

lursailaren ezaugarriak direla-eta.

Duela hilabete t'erdi Islada Ezkutatuakeko kide Asier Mendizabalek kintinplora bat aurkitu zuen. Horrek eman zien seinalea taldekideei. Larunbatean topatu zituzten. Arestian esan bezala, tresneria gehiago ere bai: Astra 300 pistola bat, txilibitu bat, metxero bat eta Astra 900 'orrazi' bat. Horiek denak erakutsi zituen asteburuko hitzorduan Muguruzak. Tresneria hori dena aztertuta, badauzkate gorpua norena izan daitekeenaren inguruko teoria batzuk, baina oraindik zalantzan dabilta: "Txilibitua, metxeroa eta orraziak pentsarazten digu beharbada asalto-goardiako kide batena izan daitekeela gorpua, baina horiek kintinplorarik ez zuten eramaten; mezu guztia apurtzen digu. Falangista bazen, ordea [ikurrik ez dute topatu oraindik], txilibituak, metxeroak eta kintinplorak badute zentzua, baina ez orraziak. Beraz, horrek ere apurtu egiten du teoria hori". "Cecilio Gomez asalto-goardiako tenientea, errepublikar sutsua, hemen inguruan hil omen zen; gure itxaropena da aztarnaren bat gehiago topatzea, ikur identifikatiboren bat, jakiteko gorpua norena izan daitekeen, edo zein bandotakoa behintzat", gehitu zuen Muguruzak.

Jose Zatoren laguntza

Herritarren laguntzarik gabe zailagoa litzateke aztarna ezkutu horiek azaleratzea. Horietako batek, Jose Zato salamankarrak (urte asko daramatza Lasarte-Orian bizitzen) ere hartu zuen parte azken bilaketan. Zatok berak azaldu zuenez, kontatu ziotenean Txaldataxurren hobi bat egon zitekeela, erabaki zuen Islada

Ezkutatuakeko kideei kontatzea. Izan ere, urte batzuk atzera, Aranzadiren laguntzarekin, Zatok bere aitaren eta beste hamahiru pertsonaren gorpuzkinak topatu zituen Salamancan: "Orduko horretan jende askok lagundu zidan, eta orain zer egingo nuen, jakin dudana ezkutatu? Ez, noski".

Erakundeak Txaldataxurren

Ikusmira handia sortu zuen Txaldataxurren aurkitutakoak erakunde desberdinetako ordezkarien artean. Bertan izan ziren Aintzane Ezenarro (Eusko Jaurlaritzaren izenean), Maribel Vaquero eta Juan Ramon Viles (Gipuzkoako Foru Aldunditik), Eneko Goia Donostiako alkatea, Xabier Arregi Usurbilgo alkatea, eta baita Lasarte-Oriako udal-korporazioko hainbat zinegotzi ere (PSE, EH Bildu eta EAJkoak, hain justu).

Paco Etxeberri nabarmendu zuen "eskertzekoa" dela hemen erakundeek memoria historikoa berreskuratzeko aldera erakusten duten interesa: "Jose Zatoren aitaren aztarnekin topo egin genuenean, ordezkari bakar bat ere ez zen interesatu; oso tristea izan zen". Aintzane Ezenarrok, Eneko Goiak, Maribel Vaquero eta Xabier Arregik goraiatu zuten taldea egiten ari den lana.

"Gipuzkoa tinko defendatu"

Apunte historiko bat egin zuen Joxe Muguruzak: "Gipuzkoak tinko defendatu zituen errepublika, demokrazia eta garapena, inbaditzaileak lurralde historiko honetara sartu zirenean; Bizkaiara mugiarazitako tropak askoz gehiago izan ziren, baina hemen ere gogor borrokatu zen altxamendu nazionalaren aurka, erresistentzia handia eta indartsua izan zen.

## Erabakitze eskubideaz hausnartuz, berriketan

Erabakitze eskubidearen ideia jasotzea, ulertzea, eta gogoeta egitea izan ziren saioaren helburu nagusiak

Iñigo Gonzalez

Dozenaka herritar gerturatu ziren larunbat goizean Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretora, Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok antolatutako 'Berriketan' saiora. Erabakitze

eskubidearen ideia jaso eta ulertzea, horri buruz gogoeta egitea eta beharbada gaur arte elkar ezagutzen ez zuten herritarrek elkarrekin gai horri buruz hitz egitea izan ziren saioaren helburu nagusiak.

Herritarrek taldeka banatu eta berriketan hasi aurretik, Unai Apaolaza filosofia irakaslearen laguntzaz erabakitze eskubideari buruzko hainbat kontzeptu zertan diren ikusi eta argitu zuten: subjektu politikoa zer den eta, batez ere, zerk egiten duen azaltzeaz gain, erabakitze eskubideak aldebakartasunaren bidetik ere zabal ditzakeen ate berriak nabarmendu zituen. Azalpena amaituta, herritarrek euren kezka eta ideiak plazaratu zituzten.



Dozenaka herritar bildu ziren 'Berriketan' saioan parte hartuz. TXINTXARRI





Sei udaletako alkateek egin zuten agerraldia ostiralean Andoainen. AIURRI

# Alor sozioekonomikoan batera aritzeko urratsa

Beterri-Buruntza da eskualde mailako garapen agentziarik ez daukan bakarra. Bide horretan lanean ari dira, baina bien bitartean, eskualdeko sei udalek (Lasarte-Oria barne) hitzarmen bat sinatu dute elkarlanean aritzeko.

## Txintxarri

Andoainen elkartu ziren ostiralean Beterri-Buruntzako sei udaletako alkateak, alor sozioekonomikoan elkarlanean aritzeko eskualde mailako hitzarmen bat sinatzeko. Astigarragako alkate Zorione Etxezarraga, Hernaniko Luis Intxauspe, Lasarte-Oriako Jesus Zaballos, Urnietako Mikel Pagola, Usurbilgo Xabier Arregi eta Andoaingo Ana Karrerek hartu dute parte ekitaldian..

Karrerek azaldu zuenez, "urrats garrantzitsua" da hitzarmena sinatzea, arlo sozioekonomikoan sei udalek egiten dituzten urratsak "eraginkorragoak" izango direlako eta herritarrei eskainiko zaien zerbitzua "osatuagoa eta hobea" izango delako. Buruntzaldea da eskualde mailako garapen agentziarik ez daukan bakarra. Bide horretan lanean ari dira, baina bien bitartean, aipatu sei udalek hitzarmen bat sinatu dute elkarlanean aritzeko.

Hitzarmenari esker tokiko garapena, sustapen ekonomiko eta enpleguarekin lotutako programak eta politikak (orain arte bakoitzak bere kasa egin ditu) modu bateratu eta koordinatuan jarriko dituzte martxan.

Hemendik aurrera enplegu planak, ekintzaileentzako eta enpresentzako zerbitzuak eta sektoreko foroak elkarlanean, sei udalek jarriko dituzte abian. Antolakuntzari dagokionez, batzorde ezberdinak erabiliko dituzte: kudeatzailea, batetik, eta koordinazio tekniko eta administratiboa eramango dutenak bestetik.

Kudeatzailea hamabi ordezkari politikok osatuko dute. Udal

**ENPLEGU PLANAK,  
EKINTZAILEENTZAKO  
ETA ENPRESENTZAKO  
ZERBITZUAK  
BATERATUTA**

bakoitzetik bi, udalbatzarretan izendatuko direnak. Batzorde horrek eskualdeak tokiko garapenean eta sustapen ekonomikoan izango duen estrategia ezarriko du.

## 1.290.976 euroko aurrekontua

Finantzazioari dagokionez, hitzarmen honetatik sortzen diren plan eta programak sei udalek urtero egingo dituzte ekarpenen bidez finantzatu dira. Udal bakoitzaren ekarpena Aldunditik jasotzen duen funtsaren arabera izango da. 2017ra begirako aurrekontua: 1.290.976 euro. Diru horrekin finantzatu dira aurten sustapen ekonomiko eta enplegu alorreko programa eta zerbitzuak.

Lau urteko iraupena du hitzarmenak. Garapen agentzia edo antzeko erakunderen bat epe horretan sortuko balute, hitzarmena bertan behera geratu eta erakunde berriak hartuko lituzke bere gain programak, zerbitzuak eta proiektuak.



NEURE KABUZ

UNAI MUÑOA

## Ideologia

Ideologiaz beteriko gizarte batean bizi gara, ahoa arrazoiz bete-bete. Ideologiatik begiratzen diogu munduari, eta bakoitzak berea du, errearen jarraitzaile sutsua izatea bada ere. Kasu askotan, gehienetan ez esatearren, norbere esentziaren lekua betetzearaino.

Pertsonak adina egi daudela pentsatuz gero, arrazoiak ez du horrenbesteko eragina, egiaren zein talaletatik begiratzen dugun baino ez du adierazten. Galdera interesgarriagoa iruditzen zait, zertarako erabiltzen dugun ideologia.

Zergatiaren zati bat, helburu kolektiboen baitakoa izan daiteke. Gizakiok, eraginkorrak izatekotan, elkartu eta ametsak bateratu egin behar ditugu, baldin eta beteko badira. Baina bestetik, norberak ere ematen dio funtzio pertsonal bat ideologiari, talde baten gerizpean nor izateko, adibidez.

Horrela, arrazoiketara ona denak besteen onarpena eta begirunea lortzeko erabili dezake, edo taldearen babesa eta identifikazioa lortzen ditu, edo bere zenbait auzi emozional eta pertsonalen irtenbide bihurtzen du, bereak diren amorruei irteera bat emanez, kasu.

Beraz, bi galdera sakon egin geniezazkioke geure buruari: zer pentsatzen dugun eta zertarako pentsatzen dugun horrela. Zein erabilpen ematen diot ideologiari? zein funtzio betetzen du nire bizitzan? Zein onura dakartzkio komunitateari? Hori geure burua gehiago ezagutzea litzateke. Zeren, ideiak sortu eta eraiki badaitezke, sinestaraztea lortuz gero, edonoren bidea baldintzatu liteke, bai eta bere etorkizuna ere. Besteak diozuna sinestea baino ez duzu behar.

Ez zait iruditzen kontua ideologiak baztertzea denik, egin garenaren sukaldara noiz edo noiz bisitatxoren bat egitea inteligentia dela baino ez dut esaten. Beste hitz batzuetan, gure sistema informatikoa zein programekin osatu diguten eta osatu dugun erreparatzea, askea izaten hasteko premiazko urratsa dela diot.

Beti baitago aukera programa zaharrak deuseztatu eta berriak ezartzeko.

Eten gabeko garapenean, gizakia zein gizadia, naturaren mugimendu dinamikoan bizi gara, atzeraka edo aurreraka, egiten dugunaren jakitun edo nora ezean, norberak aukeratutako bideari jarraika edo korronteak garamatzen errekatik...

Dena dela, mugitzea baino ez zaigu geratzen.



Los Angeles  
Grand Canyon  
Las Vegas  
Yosemite  
San Francisco  
eta askoz gehiago!

**NOAOA BIDAIK**

Hipodromo Etorbidea, 10 - 20160 Lasarte-Oria, Gipuzkoa  
T. 943 373 613 | info@noaobidaiak.com  
www.noaobidaiak.com



# Inauteriak eta Itsaspeko Film Zikloa otsailean

Hilabetea hastearekin batera, udal ordezkariak otsailerako prestatutako kultur programazioa aurkeztu zuten asteazkenean, Manuel Lekuona Kultur Etxean egindako agerraldian

## Maider Azurmendi

Jesus Zaballos alkateak, Maite Iglesias kulturako zinegotziak eta Xabier Goitia teknikariak otsailerako programazio kulturalaren baitan antolatutako ekintzen aurkezpena egin zuten asteazkenean, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Hilabete honetako ekintza nagusiak, Inauterien inguruko ospakizunak, eta Danok Kide Guraso Elkartearekin elkarlanean antolatutako Urpeko Dokumentalen Nazioarteko VI. edizioa.

Inauterien ospakizunak hilaren 18an hasiko dira; Okendo plazatik abiatuko den Euskal Inauterietan. Hilaren 22an, Musika Eskolako ikasleek kontzertu bufoa eskainiko dute. Inauteriak direla eta otsailaren 25ean, herria inauterietan murgilduko da. Azken urteekin alderatuta izango da berrikuntzarik; larunbata arratsaldean konpartsa eta karrozen desfilea egingo da herrian zehar eta igandean berriz, mozorro-lehiaketa.

Bestalde, otsailaren 6an, 13an eta 20an, Danok Kideren eskutik, Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko VI. Zikloa iritsiko da Manuel Lekuonara. Bertan, hamaika lan proiektatuko dira guztira, 19:00etan hasiko diren saioetan; "beren kalitateagatik harririk gaituzte", adierazi zuen asteazkeneko agerraldian Goitiak. Iraupen laburreko ikus-entzunezkoak izango dira gehienak, eta urpeko bizidun zertxobait gehiago jakiteko aukera eskainiko die ikustera animatzen direnei. 'Solopecios. Memoria Sumergida', '¿Qué le ha pasado al Gelidium?', 'Criaturas Olvidadas', 'La Conquete des Oceans', 'El último viaje del amiral de Kersaint', 'los secretos de la noche', 'Angelita', 'Fisterra', 'Raja empat Reefs', 'Expedición Wallacea', eta 'Travesía Getaria Zarauz, desde dentro' filmak



Asteazken eguerdian aurkeztu zuten otsaileko kultur agenda. TXINTXARRI

eskainiko dira. Azken hau, David Sanchez Carretero herritarraren lana da. Herriko egileak, Getariatik Zarautzera, igerian egindako bidaia baten testigantza eskainiko die ikusleei; itsasoaren barrutik bidaiatzeko aukera izango da.

Saio hauen sarrera doakoa izango dela ere azpimarratu zuten teknikariak.

Bihar berriz, dantza-saioa izango da Manuel Lekuonako auditorioan Ertza konpainiaren eskutik. Asier Zabaletak zuzendutako taldeak 'Hariak' dantza-ikuskitzuna eskainiko du. Honakoa, Harkaitz Cano eta Joseba Sarrionandiaren testuetan oinarrituta. Antzerkia ere izango da etxeko txikientzat hilabete honetan, hilaren 11n, 17:00etan, Ganso & Ciaren 'Kapu obra eskainiko da.

**LASARTE-ORIAKO UDALEKO KULTURA SAILAK 2017. URTERAKO SARRERA ETA BONOEN PREZIOAK MANTENDUKO DITU**

## Zinema emanaldiak

Zine saioei dagokienean, haur eta helduentzako eskaintza mantenduko da hilabete honetan ere. Haurrentzako, igandean, 'Orm Elurretako Erresuma' filma emango da, euskaraz, hilaren 12an, 'Blynki Bill, el Koala' proiektatuko da, eta 19an berriz, 'Monstres'.

Helduei zuzendutako saioetan, otsailaren 5ean, 'Underworld, guerras de sangre' filma izango da ikusgai. Hilaren 12an, 'Silencio' proiektatuko da, eta astebe beranduago, otsailaren 19an, 'Diré tu nombre' eskainiko da. Azkenik, hilabetea amaitzeko, otsailaren 26an, 'Los del túnel' komedia gozatu ahal izango da.

Okendo taldearen zine-forum saioak hilabete honen 10ean eta 24ean izango dira, ostiralez. Lehenengo saio horretan, 'Hasta el último hombre' ikusi ahal izango dute bertaratzen diren ikus-entzuleek, eta bigarren saioan berriz, 'La Reconquista' izango da ikusgai.

Asteazkenean egindako aurkezpen ekitaldian, herritarrak animatu nahi izan zituzten hilabete honetarako antolatu dituzten ekintzetan parte hartzea.

## Kolore askotariko ikastaroak Emakumeen Zentro Zibikoan

Izen-emate epea astelehenean zabalduko da eta otsailaren 8ra arte izango da horretarako aukera, zentroan bertan

### Txintxarri

Gustu guztien neurria egindako ikastaro ugari izango dira Emakumeen Zentro Zibikoan. Biodantza (doan), kantua (doan), jantzi konponketa eta patrioiak (doan), eskulanak (51,00), katekorratz-lanak (doan), bitxi tailerra (doan), ehoziak (43,96) emakumeen arteko elkarriketak (doan), Tai-Xia (21,98), orratz-lanak (doan), Yoga (29,75), Sabel dantza (30,60), Batuka (doan), antzerkia (51,00), euskara txokoa (doan) izango dira ikastaro nagusiak.

Baina bestelako zenbait ekintza ere izango dira aukeran. Bikotean elkarbizitzeko gakoak, egunerokotasunerako psikologia, sormenerako idazkera genero ikuspegitik, abilezia sozialak eta Zentra-t, mugimendutik isiltasunera meditazio saioa.

Informazio gehiago nahi duenak, zentro zibikora gerturatu daiteke, 09:30etatik 13:30tara eta 15:30etatik 19:30tako orduetean. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, dauden plazak baino izen-emate gehiago egingo balira, zozketa bidez esleituko dira plazak.

## Artisautza eta puntu saioak

Amaraun Klubak eta Gazte Klubak antolatuta, artisautza eta puntua egiten ikasteko saioak izango dira herriko haur eta gazteentzat Artisautza ikastaroa, HH5etik LH2ra arteko haurrek, asteazkenean hasi zuten ikastaroa eta 9-12 bitarteko gazteek aldiz, otsailaren 13an emango diote hasiera puntua egiten ikasteko saioei. Azken honetarako izen ematea otsailaren 10ean amaituko da.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

## 400 euroko saria

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera zuten artean, 400 euroko 10 sari banatu ziren, Urnietako Lekaion egindako zozketa ekitaldian. 2016an 95 ikaslek atera zuten gidabaimena euskaraz. Gurean, Maidar Zurriaran eta Leire Tejedor izan ziren sarituak.



# Santa Ageda bezperan koplaka

Zabaletako bizilagunak, Erketz dantza taldekoak eta Earra! bertso eskolakoak Xumelako kideekin aterako dira bihar santa eskean. Zabaletakoentzat 25. urtea izango da.

## Maider Azurmendi

Santa Ageda bezpera izango da bihar, larunbata eta urtero legez, herriko hainbat talde aterako dira santa eskean gure herriko kaleetatik. Urteurren berezia ospatuko du ordea, Zabaletako taldeak, izan ere, 25 urte dira auzotik baserriz-baserrri koplatan ateratzen direla.

Lehenengo urte hura ondo gogoratzen du Antton Garin herritarrek, "Olentzero antolatua genuen lehenengoz eta horrek bultzatuta edo, Santa Ageda bezperan zerbait egitera animatu ginen. Antonio Blas izan zen beste ekintza askotan bezala, sustatzaile".



Zabaletako bizilagunak Santa Agedako lehenengo urtean. ANTTON GARIN

Horrela izanda, koplak prestatu, jendea animatu eta entsegu batzuk eginda irten ziren duela 25 urte santa eskean.

"Urte asko neramatzan Hernanin, nire herrian ateratzen, beraz koplekin lagundu nuen eta Tapia aita eta semearen trikitixa doinuekin, aritu ginen batetik bestera auzoan zehar".

Oroitzapen politak ditu Garinek; "orduan auzoa txikia zen eta ez genuen orain besteko denbora behar, egun 4 ordu behar izaten ditugu auzo guztia zeharkatzeko, Hernaniko mugaraino joaten gara". Ohitura erroto dela dio harro Zabaletako bizilagunak; "euria, kazkabarra egin arren, ez dugu hutsik egin" hala ere, "gazte jendea animatu behar da".

Auzoa asko hazi dela eta, jende gazte pila dagoela dio Garinek eta belaunaldi berriak beharrezkoak direla azpimarratzen du beteranoen lekukoa pixkanaka hartzen joateko.

Zabaletako bizilagunek gaur bilera irekia egingo dute 19:30ean auzoko plazan biharkoa prestatzeko.

Larunbatean 18:00etan auzoko plazatik abiatuko dira euren ibilbidea egitera.

## Erketz eta Bertso eskola

Bestalde, Erketz dantza taldeak ere egingo du bere ibilbidea erdigunetik. Egun euren entsegu gela den KZGune zaharretik irtengo dira 18:00etan koplak abestuz. Euren ibilbidea nagusiki herriko erdigunetik egingo dute.

Tradizioari hutsik ez dio egingo ere ez Ttakuneko Earra! bertso eskolak. Hauek Xumela koruko kideekin aterako dira Jalgi paretik, 18:30ean.

Tabernaz taberna ibiliko dira santa eskean eta Brijitarren komentuan ere koplak abestuko dituzte. Hauentzat geldiadia zen ere Muntteri euskalategia baina larunbata izanik, ez dira bertatik pasako. Aurrekistakoaren arabera, bi orduz ariko da herritik kantuan.

## Odol berria

Ohitura zahar hau Lasarte-Oriangal ez dadin, belaunaldi berriak gonbidatzen dituzte parte hartzera.

## ZABALETA BERRI BIZIGUNEA



**7** hitzartutako  
ETXEBIZITZA BERRI  
LASARTEN

Infografia hau(ek) aldatua  
izan daiteke proiektu teknikoetan

**2 LOGELA +12m<sup>2</sup>ko terraza**  
**199.000 €tik + BEZ**

**3 LOGELA +16m<sup>2</sup>ko terraza**  
**215.500 €tik + BEZ**

TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN,  
100m<sup>2</sup>taraino

BISTA EZIN HOBEAK SANTA BARBARA ALDERA  
PERTSONALIZAZIO GUZTIAREKIN



DENA BARNE

Garajea, sukaldea, armairuak, pertsonalizazioa.

Izen emateko azken eguna: **APIRILAK 11**



**943 36 89 42**  
[www.zabaletaberri.es](http://www.zabaletaberri.es)





**Iñigo Gonzalez**

Gustura hitz egiten du bere ogibideaz eta futbolaz oro har Mikel Martijak (Lasarte-Oria, 1987). Eta gustura entzuten dira hark esandakoak: futbol partidu bat ikusten bezainbeste denboraz ia, 85 minutu markatzen baititu kazetariaren grabagailuak. Ez da hor bukatu, ordea: mahaitik altxa eta elkar agurtu bitartean igaro dira beste bost minutuak, eta baita luzapena eta penaltijaurtiketak ere, mingainetan inolako zainturatirik gabe.

Egunean 90 minutu baino dezente gehiago sartzen ditu Mikel Martijak: idazkari teknikoak da SD Eibarren. Exijentzia askoko lana dela dio, denbora libre gutxi uzten diona, baina merezi duena: "Egia da ordu asko sartzen ditudala, baina gustura egiten dut, egiten dudana gauza bakoitzak helburu zehatz bat daukalako eta baloratuta sentitzen naizelako. Futbola da nire pasioa".

Txema Indias herrikideari buruz hitz egiten hasi da: "Berarekin harremanetan jarri naizen bakoitzean oso fina, tratu onekoa eta zintzoa izan da; erlazio oso ona egin dut berarekin. Eibarrek eta Leganesek elkarren aurka jokatu zutenean, komentatu genuen: egongo al da herririk bi idazkari tekniko dituenik Lehenengo Mailan?".

**Tratu ona aipatu duzu. Idazkari teknikoek asko zaindu behar izaten duzue aspektu hori?**

Eibarren nagoenetik, batez beste, pertsona berri bat ezagutzen dut egunero. Gaur agian inor ez, baina kanpora joaten naizen asteburuetan, beharbada, hiru: jokalaria, agenteak, klubetako langileak, futboleant sartu diren enpresariak... Jendearekin duzun harremana eta tratua asko zaindu behar duzu, dudarik gabe.

Erlazioei garrantzia handia ematen diet: nola erantzun deiak eta e-mailak, adibidez. Beti hartzen dut kontuan nire izena ez, klubaren izena eta irudia daudela atzean. Ez didate deitzen Mikel Martija izateagatik, SD Eibarreko idazkari tekniko izateagatik baizik.

**Elkarrizketa egiteko hitzordua jartzerakoan, asteartea zen egun aproposa zuretzat. Lanera joan zinen gero. Asteko gainontzeko egunetan ere lanpetuta ibiltzen zara, beraz.**

Orain dela bi aste, adibidez, zazpi egunetik bi Bartzelonan pasa nituen, beste pare bat

# “Futboleant pentsatzen jaiki eta oheratzen naiz egunero”

**MIKEL MARTIJA SD EIBAR KLUBEKO IDAZKARI TEKNIKOA**

Pasotzat duena ogibide ere bada Mikel Martijarentzat: futbola. Une honetan idazkari tekniko lanak egiten ditu SD Eibarren. Laugarren urtea du klub gipuzkoarrean.

Madrilean eta bat Gijonen. Beste biak, etxean.

**Nolakoa da zure bidai asteburu bat?**

Gure taldea nola dagoen ikustea ahalbidetuko digun informazioa biltzea eta etorkizunean Eibar are talde hobea bilakatu dezaketela jokalaria ikustea dira helburu nagusiak. Zeregin horietan igarotzen ditut ordu gehienak. Hamabostean behin Eibar, nire taldea ikusten dut zuzenean. Jokalaria nola dauden baloratzen dut. Gero, fitxaketa merkatuetan, udakoan batez ere, kontratu-bukaerei, fitxaketa berriei eta salerosketei buruzko informazio ahalik eta onena edukitzen saiatzen naiz.

**Eibarrentzako zeintzuk izan daitezke jokalarri proposak?**

Bi sailkapen edo multzotan egiten dugu bereziketa. Batetik, kontuan hartzen ditugu Eibarrentzat talde bezala egokiak izan daitezkeen ezaugarriak: intentsitate eta gaitasun fisiko askoko jokalaria, indartsuak, joan eta etorri aritzeko gai direnak, nortasun handikoak: aurkari begietara begiratu eta esango diotenak ez direla makurtuko euren aurrean. Eibarrek klub bezala ezaugarri horiek dauka, eta nahi dugu zelai barruan islatzea. Zaleek ikusi dezatela taldea jokatzen, eta honakoa esan dezatela: 'Hau Eibar da'.

Jokalaria bakoitzak daukan kualitateak baloratzerakoan aspektu asko begiratzen ditugu.

Guk honela egiten dugu lan: hamaika postutan banatzen ditugu aurrea. Horietan demarkazioak daude, eta profilak barruan: ez da gauza bera erasora asko joateko joera daukan eskuin hegaleko atzelari bat edo postua gordetzeko tendentzia duena, defentsiboagoa dena. Horrelako ezaugarrien arabera multzotan banatzen ditugu.

Gero, lau parametroren arabera baloratzen ditugu. Horietako bat da taktikoki nola ulertzen duten jokoa, zein erabaki hartzen dituzten zelaian; kualifikazio tekniko ere neurtzen dugu; zelai barruan daukaten jarrera; eta pertsona gisa nolakoak diren.

**Eibarrek fitxatzeko modukoa izateko lau parametro horiek bete behar ditu futbolari batek ezinbestean?**

Guretzat oso baliogarriak izan daitezkeen jokalariek bete dituzte aurreneko hiru parametro horiek, baina ez laugarrena, pertsonala, eta erori egin dira horregatik: beharbada ez du ongi hartzen ez jokatzea, edo pisua erraz hartzen du, adibidez.

Gezurra badirudi ere, denbora asko inbertitzen dugu azken parametro hori buruzko datuak

## “EIBARREN NAGOENETIK, BATEZ BESTE, PERTSONA BERRI BAT EZAGUTZEN DUT EGUNERO”

biltzen: jokalariekin elkartzen gara, gertukoei deitu eta galdetu, partiduak jokatu aurreko beroketak ikusi, kontzentrazioetan nola konportatzen diren taldekideekin... Eibarren aldagelan elkarbizitzak egokia behar du izan: hankak lurrean dituen jendea eta gogor lan egiteko gogoa daukana.

**Lau parametro horiek beteta ere, zuen lana ez da hor bukatzen. Jokalaria eta agenteari proposamena egin, soldata, fitxaketa ordaintzeko dirurik daukan Eibarrek ala ez...**

Beste mundu bat da hori. Horra ailegatu baino lehen, ordea, orain arte aipatu dizudan lan hori guztia egiten dugu: zenbat eta gehiago ikusi, zenbat eta informazio gehiago eduki, orduan eta hobeto. Egiten duzun lanean sinetsi, eta batez ere, nahi duzuna garbi eduki, eta azkeneraino joan horrekin. Oinarritzak da hori niretzat.

Hortik aurrera, guk askotan esaten dugun bezala, beste fase berri horretara iritsiko gara iritsi behar baldin badugu, etorriko da gero, konponduko gara.

## “DENBORA ASKO INBERTITZEN DUGU JOKALARIEN ALOR PERTSONALA ZEIN DEN EZAGUTZEN”

**Pluralean hitz egin duzu orain arte behin eta berriro. Zenbat kidek osatzen duzue idazkaritza teknikoak?**

Fran Garagarza da zuzendaria. Ez da inoiz erlaxatzen, hori da bere lan egiteko modua. Garrantzia ematen die detaile guztiei eta idazkaritza teknikoko gainontzeko kideon lanari balio handia ematen dio, konfiantza du gudan; eskertzekoa da hori.

Idazkari teknikoak ni naiz, eta ikuskatzaileak koordinatzen ditut. Franek, beste sei pertsonak eta nik futbola ikusten dugu egunero. Horrez gain, beste lankide bat daukagu, euskarri teknikoek arduratzen dena: guk pilotutako informazioa sartu ordenagailuetan, jokalarien bideoak egin, eta abar.

**Nongo futbola, jokalaria, taldeak... ikusten dituzue?**

Zehaztuta dauzkagu interesatzen zaizkigun ligak. Potentzial handikoena Espainiakoak dira, zailtzarrik gabe. Asko sinesten dugu jokalaria eta taldeak zuzenean ikustean; telebistaren aurrean jartzean baino informazio dezente gehiago atera dezakezu partidu batera joanda. Florian Lejeune atzelari frantziarra fitxatu aurreko urtean bere 26 partidu ikusi genituen zuzenean. Horrez gain, pertsonalki ezagutu genuen, agenteari galdetu genion nolakoa zen, ezagutu genuen bere bizimodua... Hori guztia egin eta gero, Franek eta biok erabaki genuen Lejeuneri proposatzea Eibarrera etortzeko.

Distantziagatik gertuago daukazu liga horiek Argentinakoak baino, esate baterako. Guk egiten dugun balorazio lan horregatik, errazagoa da informazio osatuago edukitzea errazagoa da jokalaria hemen gertu aritzen denean. Horrek, dena den, ez du esan nahi Argentinan edo beste nonbait ari den jokalaria bat fitxatuko ez dugunik.

**Argentina aipatu duzu. Espainiatik kanpokoak diren ligak ere jarraitzen dituzue, beraz.**

Espainiakoez gain Portugalgo, Balkanetako (Kroazia, Serbia, Bosnia-Herzegovina eta Montenegro), Txileko, Kolonbiako, Argentinako eta Uruguaiako ligak jarraitzen ditugu. Frantziara ere joaten gara, eta Belgikan eta Holandan ere egon izan gara, baina erabaki dugu azken bi horiek ez digutela merezi, jokalarien ezaugarriak ez direlako Eibarrentzat nahi



ditugunak. Frantziakoek, adibidez, zelai barruan taktikoki ez dituzte hain erabaki onak hartzen, baina gaitasun fisiko handia daukate, eta hori interesatzen zaigu.

### **Zein eremutara bidaiatzen duzu zuk? Non mugitzen zara?**

Espainia mailan denok aritzen gara hara eta hona, baina gero baditugu arduradun jakin batzuk. Nik, adibidez, Argentina eta Uruguai kontrolatzen ditut. Hemendik gutxira Argentinara joango naiz berriro, otsail bukaeran edo martxo hasieran.

Frantziara ere joan izan naiz, Belgika eta Holandara ere bai... Eta, horrez gain, 'Instant Scout' programa erabiltzen dugu: mundu osoko futbola ikusi dezakegu, hasi Qatarreko ligatik eta Mexikokoraino, adibidez.

### **Argentinan egon zinen aurreko aldian zer tankera hartu zenien hango futbolari? Eta jokalariei?**

Jokalari argentinarren ezaugarri bat asko estimatzen dut: oso-oso konpetitiboak dira. Euren bizitzako momentu oso garrantzitsu bat da futbol partidu bat jokatzeko, eta dena ematen dute beti.

Argentinako futbola jarraitzen ez daramat denbora asko. Bertan gehiagotan egon direnek esaten didatenez, bertako ligaren maila jaitsi egin da: hango mentalitatea da partidu on batzuk egiten dituzten futbolariak berehala Europara ekartzea, negozioa egin nahi dute taldeek berehala. Azkartasun horrek eraman ditu egonkortasuna ez edukitzera eta maila jaistera. Hori komentatu didate niri.

Iaz joan nintzanean 23 partidu ikusi nituen bi asteetan. Horietako bat, Boca Juniors taldearen zelaian, La Bomboneran: 80.000 zale etengabe animatzen. Ez nekien zelaira edo harmailetara begiratu!

### **Zenbat jokalaria daukazue baloratuta honezkerok idazkaritza teknikoan?**

Milaka. Espainiako Lehenengo Mailako, Bigarreneko eta Bigarren B mailako [azken horretan 23 urtez azpikoak soilik] jokalaria guztiak ezagutzen ditugu. Denak ikusi ditugu, zuzenean zein bideoetan.

Lehen eta Bigarren mailan 21 partidu jokatzeko dira astero, eta guk zuzenean 10-11 ikusten ditugu, eta baten bat gehiago telebistan. Horrez gain, aipatu dizkizudan herrialde horietako ligetan ere presente gaude eta jokalaria asko ikusten ditugu.



Mikel Martija, Eibarren etxean, ipurua zelaian. SD EIBAR

**“WORD-EAN HASI GINEN INFORMEAK EGITEN; IMAJINA EZAZU, PENDRIVE BAT ETA 1.000 JOKALARI”**

**“GU BETI GAUDE PREST. HORI DA FRAN GARAGARZAREN MENTALITATEA: EZ DA INOIZ ERLAXATZEN”**

### **Entrenatzaileen informeak ere egiten al dituzue?**

Bai, entrenatzaileen jarraipena ere egiten dugu. Ipurua oso zelai aproposa da horretarako, adibidez. Guzti-guztiak ez ditugu baloratzen, baina duela bi asteburu ikusi nuen partiduetako batean talde bietako prestatzaileen informazioa bildu nuen. Horrek ez du esan nahi Jose Luis Mendilibarrekin gustura ez gaudenik edota berak beste norabaitera joateko asmorik daukanik. Baina egunen batean bien arteko harremana eteten bada, Eibarrek bere bidea egiten jarraitu behar du, ezin du hutsetik hasi. Beraz, biltzen dugu entrenatzaileei buruzko informazioa ere, bai.

Gu beti gaude prest, denerako. Hori da Fran Garagarzaren mentalitatea, ez da inoiz erlaxatzen. Gaitasun hori dauka, beti prest egotearena.

### **Nola antolatzen duzue hainbeste informazio?**

Internoki oso ongi antolatuta gaude: protokolo bat daukagu. Ikusten ari zaren neurketa bukatu eta gero, informe bat egin behar duzu, jokalaria baloratu, informe hori pasa, ikuskatzaileei deituz informazio gehiago jaso haiek ikusi dituzten futbolarietaz... 'Jokalari hau gustatu zait' esatea eta prozesua hor geratzea ez da nahikoa.

Gogoan dut Microsoft Word-en hasi ginela jokalarien informeak egiten. Imajina ezazu pendrive bat, eta barruan 1.000 txosten edukitzea. Hasi bilatzen jokalaria konkretu bat: erotu egiten zara. Urteak igaro ahala eta hazten joan ahala, baliabideak hobetu ditugu, datu-baseak ditugu, nahi duguna bilatzeko filtroa pasatzea errazagoa da.

Filtratzen dizkit jokalaria ezaugarrien arabera: aurrelaria, eta eskuina, esaterako. Ateratzen dizkit dauzkagun guztiak. Balorazioaren arabera ere bilatu ditzakegu: 'semaforo' moduko bat daukagu. Kolore beltza da onena, guk fitxatzeko modukoa. Gero, Eibarren errealtatearen arabera joaten gara bata edo bestearen bila.

**Azken denboraldietan baliabide informatikoak bakarrik ez, idazkaritza teknikoan aldatu dira gauza gehiago. Adibidez, kide kopurua. 2014-2015.ean bi zineten: aurten, bederatzi.**

Hori da klub osoak transmititzen duen hazkunde irudiaren

adibideetako bat. Idazkaritza teknikoak bakarrik ez, Eibarren beste alor asko ari dira hazten. Staff teknikoan, adibidez, epe berean kide kopurua bikoiztu dugu ia: hamarretik hemeretziara. Bi fisio ez, lau; mediku bat ez, bi. Nutrizionista eta psikologoa ere bai.

Hazkunde horren beste adibide bat aipatuko dizut: ni Eibarrera iritsi nintzanean, 2013-2014 denboraldian, Bigarren B mailatik Bigarreneko igo berria zen. Urte horretan janaria etxetik eramaten genuen prestatuta lehen taldeko entrenatzaile zen Gaizka Garitanok, kirol zuzendari Fran Garagarzak eta hirurok. 'Txokoan' bazkaltzen genuen, elkarte gastronomiko moduko batean: luxua zen hiruentzako, lasai bazkaltzen genuen futbolaz hitz egin bitartean.

Hiru urte pasa dira, eta partidu bezperan edo bi egun lehenago, klubeko 65-70 langile elkartzen gara han: lehen taldeko jokalaria eta entrenatzaileak, staff teknikoak, idazkaritzako kideak, garbitzaileak, zelaia moztzen duena, marketing alorreko langileak, komunikaziokoak... Denak elkarrekin, bereizketarik gabe: 'Lekua dago hemen? Bai!'. Eseri, eta bazkaldu. Kluba hazten ari da, baina esentzia mantenduz, alorrek bereizi gabe. Nik balio handia ematen diot horri, klubek horrela izan behar dute nire ustez, egon Lehenengo Mailan edo erregionaletan. Normaltasun egoera horiek islatzea, bazkalorduan adibidez.

### **Hazkunde garaietan zailagoa izan daiteke hankak lurrean mantentzea...**

Klubaren mentalitatea da gauza guztiak ongi finkatzea, sinesten dugun gauzetan indarra jartzea eta horiengan sinestea. Ez dauka fakturarik ordaindu gabe, langile guztiok hilero-hilero kobratzen dugu gure soldata, eta urtero irabaziak ematen ditu. Diru-kopuru garrantzitsu bat ari da gordetzen etorkizunera begira, ondarea egiten hasi da. Esango nuke orain hasi garela egonkortasun puntu bat edukitzen Eibarren, nahiz eta hori esatea zaila den, urte batetik bestera kategoria galdu dezakezulako. Baina une onean gaude.

### **Klubaren hazkundeak, beraz, elitean jarraitzeari lotuta dago?**

Eibarren lan egiteko moduak aldatu ditzakezu, eta helburuak ere bai, eta hazten jarrai dezake. Esaterako, aurten ez ditugu





Mikel Martijak eta Fran Garagarzak prentsaurrekoa eskaini zuten denboraldia hasi aurretik, udaran, Eibarren kirol organigramari buruzko azalpenak emateko. SD EIBAR

salduko elastikoak; mantendu dezakezu hazkundera. Klubak kategoria galtzen badu, ordea, ez du edukiko gaitasunik gaur egungo erritmoa mantentzeko: lanpostuak, soldatak... 40 milioi euro baino gehiago jaso ditu klubak aurten telebista eskubideengatik, adibidez.

**Oraindik goiz da, baina ez dirudi aurten halakorik gertatuko denik. Bigarren itzulia hasi berrikan 29 puntu ditu taldeak, eta badirudi oso merke egongo dela salbazioa aurten.** Lasaitasuna ematen du hogei partidu jokatu 29 puntu edukitzeak. Gauzak okertzea oso zaila izango dela uste dugu, baina guk ez dugu altxako hanka azeleragailutik.

**Neguko merkatuan ez duzue egin mugimendurik apenas. Datorren urtera begira ari al zarete lanean honezker, ala mantentzea matematikoki bermatu arte itxaroten ari zarete?**

Jota Peleteiro Brentford taldera itzuli da eta ez dugu fitxaketarik egin. 22 jokalaririk daukagu, lesioren bat gehiago orain baina lasai gaude. Hori bai, badaezpada ere beti gaude hor; aurrelari asko begiratu ditugu urtarrilean, ikusten genuelako behar bat egon litekeela postu horretan.

Datorren urtera begira erabaki definitiborik ez dugu hartu oraindik, baina lanean ari gara, bai. Niretzat, Asier Riesgoren kontratua berrikan izana

etorkizunera begira eman dugun urrats bat da. Kluba egonkortzen joatea da gure helburua: utzita etorri beharrean kontratuak dauzkaten jokalariek ekartzea, harrobia sendotzea [aurten kuotak kendu dituzte; gazteek ez dute ordaindu behar Eibarren aritzeagatik] eta jokalariek formatzea... Lan egiten dugu pentsatuz datorren urtean Lehen Mailan ariko garela, baina horrek ez du esan nahi jaitsiz gero klubak hutsetik hasi beharko lukeenik, edukiko luke zer egin. Baina, esan bezala, mantenduko bagina bezala ari gara lanean, urrats gehiago egiteko informazio ahalik eta gehiena biltzen.

**Hazkundearen eta egonkortasunaren isla da lehen taldearen jarduna aurten. Ligan 29 puntu, Europatik gertu, eta Errege Kopako final laurdenetara iritsita. Lan eta lan ari zaretenontzat pozgarria izango da hori.**

Eibarzale bat bere taldearekin pozik egotea helburu garbia da. Nik nahi dut zale bat kontentatu ateratzea Ipuruatik Eibar jokatzeko ikusi ostean. Zaleak pozik egotea gauza handia da. Errege Kopan Osasunaren aurka jokatu genuen kanporaketa bukatu eta gero, jendea elkar besarkatzen ikusi nuen, lortu berri genuena ospatzen: Eibarren historian lehen aldiz, 76 urtean, Errege Kopako final laurdenetara sailkatu ginen. Klubarentzat

berriak diren markak ezartzen dituzula ikustea pozgarria da.

Oso gustura egiten dut lan Eibarren, eta gauzak ondo badoaz are kontuago nago, noski. Nabaritzen dugu klubak sinesten duela gure lanean: konfiantza eman digu erabakiak hartzeko. Aldatu egin dugu filosofia: jokalariek erosten hasi gara, kontratu luzeak sinatzen... Horrek egonkortasuna ematen dio klubari, dena orain arte bezala badoa oinarri sendo bati egiteko aurre datorren urteari: hamabost jokalaririk ekarri beharrean, bospasei bakarrik. Udaran lana emango digu taldea osatzeak, baina lan kopurua espezifikoa izango da. Ez dugu lan gutxiago egingo; behar bakoitzari denbora gehiago eskaini ahalko diogu. Kalitatea emango digu horrek.

Halere, guk hartzen ditugun erabakiak ez dira matematikoak: futboleko, bi gehi bi ez dira beti lau. Ez da ekuazio bat egin eta emaitza jakin bat lortzea. Jokalaririk bat on izan daiteke, baina Eibarren ere ongi ariko ote da? Ba agian ez. Baina bi gehi bi egitearen emaitza lau izatera gehiago hurbilduko zara baldin eta egiten duzunean sinesten baduzu eta azkeneraino bazoaz horrekin. Arrakasta ez dizu bermatuko horrek, baina gertuago egotea ahalbidetuko dizula uste dut nik.

**Egin dezagun ekuazio bat bigarren taldearekin: 23 partidu jokatu aurten, eta 49 puntu. Bigarren sailkapenean. Emaitza, Bigarren B mailara igotzea?**

Emaitza ez dakit, baina helburua hori da. Motz geratzen da hirugarren maila bigarren taldeko jokalariek lehenengora jauzi egiteko gero. Dena den, aurten Imanol Sarriegik egin du debuta, adibidez. Kalitatiboki urrats bat egingo genuke kategoriaz igota: lortzen badugu, jokalarien gaitasuna altuagoa izango da eta entrenatzaileak gehiago ikusiko ditu gai lehen taldera igotzeko.

Bigarren urtea da CD Vitoria gure filiala dela. Elbar B sei urte atzera desagertu zenetik ez geneukan. Ederki ari dira, ea horrela jarraitzen duten.

**“HARTZEN DITUGUN ERABAKIAK EZ DIRA MATEMATIKOAK; BI GEHI BI EZ DIRA BETI LAU FUTBOLEAN. BAINA EGITEN DUZUNEAN SINESTEN BADUZU, EMAITZA LAU IZATETIK GERTUAGO EGONGO ZARELA USTE DUT”**

**Emakumezkoen lehen taldea ere ederki ari da Bigarren Mailan. Zein da euren helburua?**

Bigarren mailan egonkortzea. Pare bat denboraldi daramatza maila horretan taldeak, eta kategoria horretan finkatzea nahi dugu. Gero eta emakumezko futbolari gehiagok hartzen dute bide hori, Eibar eta inguruko neska gero eta gehiago ari dira animatzen harrobian jokatzerako. Duela hiru urte apenas zegoen jokalaririk, eta orain hiru talde ditugu: seniorrena eta bi harrobian.

Eta orain harrobia aipatu dudala, badaukagu beste egitasmo bat ere esku artean.

**Zein egitasmo?**

Kirol-hiri bat eduki behar du Eibarrek; Franek eta biok asko sinesten dugu egitasmo horretan. Pausu garrantzitsu bat izango da. Gaur egun, hasi Lehenengo Mailako taldeak eta futbol eskolaraino, hiruzpalau entrenamendu gune ditugu: Atxabalpe (Arrasaten), Iurreta, Unbe eta Ipuru alboko zelaia. Ez daude elkarrengandik urrutik, baina guzkiekin kontaktua edukitzea zaildu egiten du.

Asmoa da lauzpabost zelai edukiko dituen instalazio bat egitea, harrobia eta profesionalak gune berean egoteko. Egia da Eibarren geografia ez dela erraza, lautada bat topatzea. Baina ari gara horretan ere: lan-kalitatean irabazi egingo dugu proiektu horrekin.

**Kirol-hiriaren egitasmoan ere murgilduta zaude orduan. Futbola da hori ere, baina klubarekin lotura gehiago duen funtzio bat da, ez hainbeste jokotik informazioa ateratzearekin, ezta? Horrelako zeregin gehiago dituzu?**

Eibarren hazkundearen ondorioa da: prozesu asko egin behar dira, eta horiek formalizatzen ari naiz. Prozedura batzuk finkatu eta horiek euskarri finko batean jaso. Adibidez: zer egiten du ikuskatzaile batek idazkaritza teknikoan? Hau, hau eta hau. Ba hori idatzita utzi, dokumentatu, klubarentzako. Etorkizunean pertsona berri bat etortzen bada, jakin dezala zehazki zer egin behar duen, erreferentzia bat eduki dezala.

Detalle txikiak dira, baina oso garrantzitsuak. Gerta daitekeen beste egoera bat: pentsa ez zarela konturatzen jokalaririk bat zigortu dagoela eta ezin duela jokatu, baina zelaira irteten dela. Astean



zehir horrenbeste lan egin gero horrelako huskeria batengatik dena pikutara joateko...pena litzateke. Gauza horiek guztiak ahalik eta prestatuen edukitze aldera ari gara lanean.

Horrez gain, EHUrekin hitzarmen bat daukagu, eta formazio saioak eskaintzen ditut, azaltzen dut zer nolako lana egiten dugun Eibarreko idazkaritza teknikoan. Ipuruan areto batzuk moldatu ditugu saioak emateko.

#### **Eibar gero eta dimentsio gehiago ari da hartzen.**

Eibar ez da soilik baloi bat, ez da bakarrik futbola. Nahi dugu kluba eredu izatea gizartearentzat, alor guztietan: hezkuntzan, formazioan... Euskarari ere ematen diogu garrantzia. Aurten Lehen Mailan bost euskal talde arituta jokalaria euskaldunen merkatua ez da zabala, baina klubaren dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz dago, prentsaren aurrean euskaraz aritu behar dugunean aritzen gara...Eibar mundu horretan presente egotea ere nahi dugu.

#### **Auskalo zenbat aldiz errepikatu dugun 'futbola' elkarrizketa honetan dagoeneko. Eta entzuteko geratzen zaizkizun aldiak oraindik, ez bakarrik solasaldi honetan, baita egun, aste, hilabete eta urte osoan ere. Oso gustura sumatzen zaituz hizketan, baina ez al zara saturatzen? Ez al da gehiegi batzuetan?**

Askok esaten didate gauza bera: oso gustura hitz egiten dudala nire lanbideari eta futbolari buruz. Eta hala da, futbola delako nire pasioa, eta baita nire bizitza ere. Jende asko ezagutu dut futbolarengatik, eta gertatu zaizkidan gauza gehienak daude kirol horrekin lotuta. Futbolak ez nau inoiz nekatuko.

Saturatzearena? Ez dakit... Gertatu izan zait partiduren batera joan eta esatea: 'A zer nolako partidu astuna ikusten ari naizen!'. Beste batzuetan, ordea, espero gabe, momentu oso onak bizitu ditut.

Nik nire lanean egiten dudana gauza bakoitzak arrazoi bat dauka, helburu konkretu bat dauka. Horrez gain, ikusten dut nire iritziak eta lanak balio handia daukela, baloratua sentitzen naiz, erabilgarria da egiten dudana. Ilusioz ari naiz, eta indarrarekin lan honetan jarraitzeko, dedikazio askokoa den arren. Ordu asko sartzen ditut, etxera berandu joaten naiz



Zelai barrukotik baino, harmailetakoa perspektibatik behatzen du futbola orain Mikel Martijak. Gustura dabil horretan ere. SD EIBAR

normalean bulegotik, baina egia da baita ere nik neuk antolatzen dudala nire lan-jardunaldia.

Egunen batean hori dena aldatuko balitz, ikusiko banu ez dagoela konfiantzarik nik egiten dudanean, edo nire lanak ez daukala xede finkoren bat... Horrek pertsonalki eragin ahal dizu, eta eraman ahal zaitu nahiago izatera beste edozer egitera. Nik, ordea, oso gustura hartzen dut autoa egun batean bat-batean Frantziara joan behar badut partiduren bat ikustera, edo Kike Garcia fitxatzerakoan egin genuen bezala, abenduaren 25eko bazkaritik altxa eta Manchesterrera hegazkin bat hartu eta berarekin elkartu ginenean, jokalaria ezagutzeko. **Eibarrera entrenatzaile gisa iritsi zinen, baina berehala aldatu zenuen karguz. Ez al duzu faltan botatzen zelai barruan egote hori, futbola ikusi eta bizitzeko perspektiba hori? Orain harmailetakoa eta bulegokoa ikuspuntua daukazu.**

Zortzi urte eman nituen jarraian entrenatzaile bezala herrian, Ostadar SKTn. Eibarrera ere hala iritsi nintzen, baina Franek ulertu zuen nire profila aproposa zela beste kargu batzuk hartzeko, eta orduan pentsatu nuen: 'Zergatik ez?'. Aukera polita zela ikusi nuen. Entrenatzaile

mundua oso polita da, baina gogorra ere bai. Nire bizitza aldatzeko aukera eman zidan proposamenak, beharbada nire planen artean ez zegoena une horretan: futbola izatea nire ogibidea.

Goizetan futboleant pentsatzen jakitzen naiz, eta futboleant pentsatzen oheratu gauetan. Hori da niretzat futbolaz bizitzea. Jende askok egiten du hori, eta beste askok ere egingo lukete. Ni zaku horretan nago une honetan, luzarorako espero. Esan bezala, nagoen tokian gustura nago, baloratua sentitzen naizelako. Hori horrela ez balitz, beste bideren bat hartuko nuke.

Nire bizitza profesionala asko aldatu da, ordu asko sartzen ditut eta denbora libre gutxi izaten dut, baina gustura nago egiten dudanarekin. Hori bai, bihar bertan jaitsiko nintzateke aulki batera entrenatzera, talde bat zuzentzera, edo jokatzera ere bai. Esango balidate 'Mikel, bihar partidu bat jokatu dugu eta zu izango zara entrenatzailea', hartuko nuke arbela berriro jokalariei jarraibideak emateko. Baloi bat ikusten dudanean ere ostiko bat ematen diot, eta ahal dudanean lagunekin jokatzeko futboleant. Entrenatzaile izateari ez diot inoiz utziko,

denbora asko eman baitut horretan. Baina orain fase konkretu hau bizitzen ari naiz eta gustura nago, gaztea naiz oraindik.

Egia da baita ere ez daukadala 'Reflex usain' hori nire lanean, faltan botatzen dut hori.

#### **Mikel Martijaren bizitzan aldaketa hori gertatu zenetik laugarren urtea da aurtengoa. Bistan geratu da Eibarrek eboluzionatu egin duela epe horretan. Eta Mikel Martijak?**

Gaur esnatu naiz, eta, profesionalki, futbola da nire eginbeharra. Kezka pertsonal askoz gehiago ere badauzkat, noski, baina futbolaz bizi naiz. Azken urteetan pasa naiz ardura gehiago edukitzera, kargu

## **“FUTBOLA DA NIRE PASIOA, ETA NIRE BIZITZA. JENDE ASKO EZAGUTU DUT FUTBOLARENGATIK ETA GERTATU ZAIZKIDAN GAUZA GEHIENAK HORREKIN DAUDE LOTUTA. EZ NAU INOIZ NEKATUKO FUTBOLAK”**

garrantzitsu bat daukat eta pozarren hartzen dut, hori egin nahi dudalako. Futbola da nire pasioa, esan dut lehen ere. Eta gaur egun nire lanbidea ere bai.

Futbolaren fase guztiak ezagutu ditut: izan naiz jokalaria, entrenatzaile eta orain idazkari tekniko. Hori formazioa da niretzat. Gaur egun alor asko kontrolatu behar ditut: jokalariek ikusi eta eurei buruzko informazioa lortu, agentei deitu, talde ingelesekin operazioen bat egin behar dugunean nik egiten dut, horretarako nire ingeles maila hobetu dut. Izet Hajrovic duela bi denboraldi taldera etorri zenean ingelesez besterik ez zekien hitz egiten eta ni nintzen bere kontaktua, AC Milan talde italiarraren idazkari teknikoarekin egin izan ditut bilerak, duela gutxi Mino Raiola agente ezagunak ere deitu dit... Normaltasunez hartzen ditut horrelakoak. Niretzat berdin-berdina da izen handiko agente batek deitzen badit edo nire lagun-min batek, edo kazetari batek elkarrizketa bat egiteko.

#### **Oraindik ere entrenatzaile sentitzen zaren aldetik, hainbat momentu biziko zenituen Gaizka Garitanorekin aurrea eta Jose Luis Mendilibarrekin gero.**

Asko hitz egin dut futbolaz biekin, bidaietan eta beste hainbat momentutan. Kontatu dizkizate euren esperientziak, eta uste dut entrenatzaile bezala ere hobetu dudala, naiz eta orain ez naizen ari horretan. Ikasi dut entrenatzaile batek zeri begiratu behar dion, nola, zergatik... Hori ere formazioa da.

#### **Herriko Michelingo zelaian hainbat eta hainbat ordu eta egun igaro zenituen. Zure lana dela eta, gutxitan agertzerik izango duzu orain...**

Pentsatu izan dut, arratsalde batean gustura gerturatuko nintzatekeela Michelinera entrenamendu edo partiduren bat ikustera, baina oso gutxitan egin dezaket hori, lanagatik. Halere, argi daukat ez zaidala ahaztuko inoiz non ditudan sustraiak. Lasarteoriatarra naiz, eta hori ez dut zertan ezkutatu. Azken finean, egun batean herriko pertsona batzuek eman zidaten aukera Ostadar SKTren lehenengo taldea entrenatzeko, eta askotan esaten ez dudana arren, oso eskertuta nago horregatik ere.



# Triatloi denboraldirako prestaketa zorrozten

2017ari hasiera eman diote Trinkoko kirolariek. Hilabeteen bi bizikleta irteera egiteko asmoa dute, eta otsaileko lehena bihar egingo dute. Herriko triatloi eta duatloi zaleak batzea da haien helburua, elkarrekin entrenatu eta konpetitzeko.

## Martin Vicioso

Urteko lehen irteerak egin dituzte Trinko triatloi taldeko kirolariek. Kide Asier Gorostegik azaldu duenez, "urtariletik ekainerako bizikleta irteerak" antolatuko dituzte. Hilean bi egiteko asmoa dute, progresiboki zailtasuna handituz.

Pasa den larunbatean, adibidez, Ordiziara egin zuten joan etorria taldeko bederatzita lagunek. Urtariletik eta otsaileko saioak zailtasun txikiagokoak izango direla azaldu dute, 60 eta 70 kilometro artekoak. Herritarren batek haiekin atera nahiko balu, sare sozialetan jakitera emango dituzte hitzorduak.

## Hiru kirol prestatuz

Triatloiak duen zailtasun nagusia hiru kirolak -txirrindularitza, igeriketa eta korrika- behar bezala uztartzea da. Gainera, Gorostegik azaldu du "Talde bateko kideen entrenamenduak bateratzea" ez dela erraza. Horregatik, besteak beste, prestatu dute ekainera



Etorkizunean taldekide gehiago erakarri nahi ditu Trinkok. TXINTXARRI

bitarteko bizikleta irteeren egutegia.

"Taldeen" entrenatzea dute gustoko txirrindulari askok, eta Gorostegiren ustez Lasarte-Orian lehenagotik ere bazen "bizikletan ateratzeko ohitura". Hori bai,

"oso maila desberdinarekin". Hemendik aurrera, hilean bi larunbatetan Trinkok antolatutako irteeretan parte hartzeko aukera edukiko dute herritarrek. Hala, Lasarte-Oriako kirol giroa sustatzeko asmoa dute.

Igeriketari dagokionez, Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan entrenatzen dute, Buruntzaldea IKT-k antolatutako masterrentzako saioetan.

Korrika egiteko, bestalde, bi aldiz geratzen dira astean, astearte eta ostegunetan arratsaldeko 18:00tan, kiroldegian. Herritar batzuk gehitu zaizkie, eta beste norbaitek haiekin entrenatu nahiko balu, irekia du atea.

## Apiriletik aurrera, triatloiak

Trinkoko kideen helburu nagusia triatloietan lehiatzea izan arren, duatloietan ere parte hartzeko asmoa dute. Otsailean eta martxoan hasiko dira Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo frogak, eta Iurgi Los Arcos eta Leo Juarez lehia goiztiar horietan parte hartzeko asmoa dute.

Apirilean Aizarnazabalen egingo duten froga da duatloi mailan aurtengo "erronka nagusia".

Apirilean, berriz, triatloi denboraldiari emango diote hasiera. Gorostegik jakitera eman duenez, "ohitura" hartu dute lehenengo froga batera egiteko. Senperera joango dira taldekako triatloia egitera. "Seguru aski lauko bi taldetxo osatuko ditugu, eta elkarrekin pasako dugu larunbat arratsaldea".

Halaber, maiatza eta ekainean zehar Gipuzkoan burutuko diren froga gehienetan parte hartuko dutela adierazi du. Oraindik egutegia zehaztuta ez daukaten

arren, espero dute Trinkok presentzia izatea triatloi ibilbidean.

## Trinko errotu

2016rako helburu nagusia "taldea osatu eta mapan jartzea" zen. Alde horretatik, "pozik" dira, oinarri sendoa dutelako. Etorkizunera begira, lagun gehiago erakarri nahi dituzte eta taldean emakumeen presentzia handitu.

Kirol errendimenduari dagokionez, batzuek beraien helburuak lortu dituztela azaldu du Gorostegik, nahiz eta "bigarren mailakoa" dela aitortu. "Garrantzitsuena", Trinkoko kidearen ustez, "taldea errotzea" zen.

Triatloiaz interesatu diren herritarrek erakartzeko asmoarekin, "gehiegizko zailtasunaren mitoa hautsi" nahi dute.

"Kros arrunta baino gehiago prestatu behar da, bai, hiru kirol ezberdin egin behar baitira. Baina triatloi motz bat egin ahal izateko ez da beste munduko gaitasunik behar", adierazi du Gorostegik.

Nabarmendu dute materialari edo bestelako gai bati buruzko edozein zalantza argitzeko prest daudela.

## BIZIKLETA ETA KORRIKA SAIOAK ANTOLATZEN DITUZTE TALDEAN ENTRENATZEKO HELBURUAREKIN

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Antiguoko KE</b> Larunbata. 12:45. Michelin.
<b>JUBENILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Lengokoak KE</b> Larunbata. 15:45. Michelin.
<b>OHOREZKO ERREGIONAL MAILA</b>
<b>Anaitasuna CD - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:00. Txerloa zelaia, Azkoitia.
<b>ERREGIONALEN 1GO MAILA, KOPA</b>
<b>Texas Lasartearra - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:30. Michelin.
<b>EMAKUMEEN LURRALDE MAILA</b>
<b>Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT</b> Igandea. 16:30. Mastegi, Lesaka.
<b>JUBENILEN 1GO MAILA, IGOERA FASEA</b>
<b>Landetxa KT - Ostadar SKT</b> Igandea. 16:30. Ugalde Ventas, Irun.

<b>SASKIBALOA</b>
<b>PARTIZIPAZIOKO KADETEAK</b>
<b>Ostadar SKT - ZAST Lizardi ZKE</b> Larunbata. 09:30. M.Chourraut Kiroldegia.
<b>ERRENDIMENDUKO JUNIOR NESKAK</b>
<b>Ostadar SKT - Cafes Aitona Askatuak</b> Larunbata. 11:00. M.Chourraut Kiroldegia.
<b>Goierri Kirol Aukera - Ostadar SKT</b> Larunbata. 12:00. Aldiri Kiroldegia, Urretxu.
<b>ERRENDIMENDUKO KADETEAK</b>
<b>Ostadar SKT - Bera Bera</b> Larunbata. 16:00. M.Chourraut Kiroldegia.
<b>SENIOR EMAKUMEZKOA, 1. PROBINTZIALA</b>
<b>Ostadar SKT - TAKE Aralar Kirolak</b> Igandea. 11:00. M.Chourraut Kiroldegia.
<b>SENIOR GIZONEZKOA, 3. NAZIONALA</b>
<b>Alde Zaharra C - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Benta Berri Kiroldegia, Donostia.

<b>PILOTA</b>
<b>BINAKAKO PROMOZIO TXAPELKETA</b>
<b>Arteaga II/Erasun - Ugalde/Martinez</b> Larunbata. 17:30. Ibarrondo pilotalekua, Idiazabal.
<b>EUSKAL HERRIKO KLUBEN LIGA</b>
<b>Paz Ziganda - Intza KE</b> Larunbata. 18:00. Lorenzo Goicoa pilotalekua, Atarrabia.
<b>ARETO-FUTBOLA</b>
<b>HERRIKO TXAPELKETA</b>
<b>Kattagorri Insausti - Ilargi</b> Ostirala. 19:45. Kirolgunea.
<b>Urdaneta H.K. - Txoko</b> Ostirala. 20:45. Kirolgunea.
<b>Reformas Lagunak - Izkiña</b> Larunbata. 09:30. Kirolgunea.
<b>Indaux - Viña del Mar</b> Larunbata. 10:30. Kirolgunea.
<b>Aita Amari - Kebab Taberna</b> Larunbata. 11:30. Kirolgunea.

<b>Ibaros Latino - Also</b>
Larunbata. 12:30. Kirolgunea.
<b>GIPUZKOAKO 1GO MAILA</b>
<b>ISU Leihoak - Hirukide Eskolapioak</b> Ostirala. 20:55. M.Chourraut Kiroldegia.
<b>Inter Eder Kafetegia - Cecilia Kebab Ostadar</b> Larunbata. 18:00. Mons Kiroldegia, Donostia.
<b>3. NAZIONAL MAILA</b>
<b>Ostadar Antonio Aroztegia - Otxartabe CD</b> Larunbata. 18:00. M.Chourraut Kiroldegia.
<b>GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA</b>
<b>Kafe Buenetxea - Zarautz KE 'A'</b> Igandea. 09:30. M.Chourraut Kiroldegia.
<b>IGERIKETA</b>
<b>50 METROKO SAILKAPENAK</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo igerilari alebin eta infantilek 50 metroko sariaren kanporaketak jokatuko dituzte.</b> Larunbata. 14:30. M.Chourraut kiroldegiko igerilekuan.

<b>GINNASTIKA ERRITMIKOA</b>
<b>KADETE ETA SENIORRAK</b>
<b>Amateur faseko lehenengo jardunaldia jokatuko dute kadeteek taldeka eta seniorrek bakarka eta taldeka</b> Larunbata. Egun osoan zehar. Labegarieta kiroldegia, Bergara.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>12 ETA 10 URTE AZPIKOAK</b>
<b>Federazioko jardunaldiak</b> Igandea. 10:30. Michelin.
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Durango RT - Babyauto Zarautz RT</b> Igandea. 12:00. Asti, Zarautz.
<b>PADELA</b>
<b>HERRIKO TXAPELKETA</b>
<b>Lasarte-Oriako Padel Txapelketako partiduak jokatuko dira</b> Ostiraletik larunbatera. Kiroldegiko pistak.



# Urteari hasiera ona eman diote herriko igerilariek

Buruntzaldea IKT-ko igerilariek ondo hasi dute 2017a. Zenbait taldekide Gipuzkoako eta EAeko selekzioak deituak izan dira, eta Nahia Zudaire Espainiako egokitutako igeriketan txapeldun izan da. Txapelketetarako gutxiengo markak lortzeko jardunean daude orain.

## Martin Vicoso

Neguko prestaketak amaitze bidean dira Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak. Neguko Ligako jardunaldiak pasa berri den asteburuan bukatu zituzten, balantza onarekin. Izan ere, ekipoko zenbait errekor eta marka hobetuz.

Halaber, Nahia Zudaire Espainiako egokitutako igeriketan txapeldun atera zen Valdemoron egindako lehiaketan. Taldeko arduradun Borja Apeztegiak azaldu duenez, "pozik" daude lortutako emaitzekin, nahiz eta azpimarratu nahi izan duen "garrantzitsuena bere garapenari jarraipena ematea" dela.

## Datozen erronkak

Hurrengo hilabeteetara begira, zenbait helburu identifikatu dituzte. Euskadiko selekzioak Leire Martin deitu du, eta Erkidego arteko txapelketan lehiatuko da hurrengo astean Castellón. Inigo Ibarburuk, aldiz, 'Zaragoza Hiria' sarian hartuko du parte martxoaren 3an, 4an eta 5ean. Nazioarteko froga izanik ere, Apeztegiak azaldu du Aste Santura aldean egingo diren kompetizioetarako prestatzen ari dela gehienbat. Dena den, "bere onena" emango duela nabarmendu du parte prestatzaileak.



Neguko Ligako azken jardunaldian ateratako talde argazkia. BURUNTZALDEA IKT

Gipuzkoako, EAeko eta Estatuoko Txapelketetara sailkatu ahal izateko gutxienezko markak eskuratzen saiatzen ari dira taldeko igerilari guztiak euren kategoriatan.

Bestalde, taldeko igerilari batzuk Gipuzkoako selekzioak deituak izan dira azken hilabeteetan teknifikazio saioak egiteko. Besteak beste, Leire Martin, Ainhoa Martin, Paula Sevillano, Nora Imaz, Unai G. Somovilla eta Joane Arzalluz.

Bihar taldeko infantil eta alebinez 50 metroko sailkapen frogan hartuko dute parte kiroldegiko igerilekuan.

Otsailaren 12an Legazpin jokatu diren finalerako txartela lortzen saiatuko dira igerilari lasarteoriatarrek.

## Instalakuntzak

Lasarte-Oriako kirol instalakuntzetan egingo diren aldaketei dagokienez, Buruntzaldea IKT-ko arduradunak dio 50 metroko pizsina nahiago dutela, kirol eta modalitate berriak frogatzeko aukera ematen duelako; esaterako, urpoloa. Dena den, nabarmendu du xehetasun ekonomikoak ez dituela ezagutzen.



TXINTXARRI

## Igoera faserako sailkatuta

Bi aukera zituen Emakumeen Lurralde mailako Ostadar SKTk igoera faserako sailkatzeko. Gehiago itxaron nahi izan gabe, lehenengoan lortu dute, Antigua Luberi taldeari 1-0 irabazita Michelinen. Lehen multzoko hirugarren postua bermatu dute, 35 puntu bilduta. Eta azken jardunaldian lidertza eskuratu dezakete, Beti Gazteri irabazi eta Touring eta Ordiziak galtzen badute.

## Garaipen argia lortu zuten Arteaga Ilak eta Erasunek Tolosan

Binakako Promozio Txapelketan bigarren garaipena lortu zuen Axier Arteaga herritarrek, Jon Erasun zizurkildarrarekin batera. Errandonearen eta Martijaren aurka Tolosako Beotibarren jokatu zen partiduan jaun eta jabe izan zen bikote gipuzkoarra. Bihar, berriz, Ugalde eta Martinez izango dituzte aurkari Idiazabalgo Igarondo pilotalekuan.

## Urrezko hiru puntu Ostadar Antonio Aroztegiarentzat

Areto futboleko 3. Nazional mailan urrats garrantzitsuak eman du Ostadar Antonio Aroztegi taldeak pasa den asteburuan eskuratutako garaipenari esker.

Lasarteoriatarrek baino puntu bat gehiago zuen Oiartzun hartu zuen menpean Ostadar Antonio Aroztegiak, 1-6. Hala, oarsoarrak azkenaurerako postuan utzi dituzte 11 punturekin, eta bi koxka gorago dira herritarrek 13rekin.

Oraindik ere borrokatu beharko dute maila mantendu nahi badute. Izan ere, talde asko daude tarte motzean. Aste honetan, laugarren postuan den Otxartabe jasoko dute Maialen Chourraut taldearen kiroldarian, larunbateko 18:00tan.

## Arteaga eta Esnaola Mus Txapelketako hurrengo faserara

Aurreko ostiralean jokatu zen Euskal Herriko Mus Txapelketako Lasarte-Oriako kanporaketa Xirimiri Elkartearen. Guztira 11 bikote elkartu ziren eta Xabier Arteagak eta Beñat Esnaolak osatutako bikotea atera zen garaile. Haiekin batera, Javi Solchaga eta Alexander Rodriguez arituko dira Ibarren jokatu den Gipuzkoako fasean.

## Bihar hasiko dituzte Amateur faseak LOKEko gimnastek

Bergarako Labegaraieta kiroldegian dute hitzordua bihar LOKE taldeko gimnasta kadete eta seniorrek. 2017ko lehenengo Amateur fasea jokatu dute, egun osoko jardunaldian.

Goizean kadete A taldeak hartuko du parte uztail eta baloiekin. Arratsaldean, berriz, Senior A-koen txanda helduko da.

Bakarka zenbait gimnasta senior lehiatuko dira: Garazi Gomez, Aizpea Arroyo, Ainara Apeztegiua eta Alazne Gonzalez.

Hurrengo astetan hitzordu gehiago edukiko dituzte lasarteoriatarrek, eta Gipuzkoako Txapelketetara sailkatzeko asmoarekin dira.

**LaSalle Berrozpe**  
**LSB**  
Andoain

**IKASTETXEKO AUTOBUSA**  
— LASARTE - ANDOAIN —

**LA SALLE BERROZPE IKASTETXEA**

**Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era**  
**2017 · 2018 MATRIKULAZIOA**

- HH Haur Hezkuntza
- LH Lehen Hezkuntza
- DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

www.lasalleberrozpe.eus - 943 59 05 57 - La Salle Etorbidea, 5 Andoain





Irudian, Roxana Birca, Bontu Rebitu, Nuria Fernandez eta Elena Loyo. Rebitu nagusitu zen azkenean. TXINTXARRI

# Bahreingo atletak nagusi 62. Nazioarteko Krosean

Sadik Mikhou eta Bontu Rebitu atleta bahreindarrak izan ziren aurreko igandeko 62. Nazioarteko Krosaren garaileak. Urtero legez eta eguraldia lagun, Lasarte-Oriako eta inguruetakoz zale ugari gerturatu ziren Hipodromora, kirol-goiz eder batez gozatzeraz.

## Iñigo Gonzalez

Bahreingo atletak izan ziren garaile emakumezkoen zein gizonezkoen krosean joan den igandean. Emakumezkoetan, ezustekorik ez: Bontu Rebitu faboritoak jantzi zuen txapela, azkeneko metroetan Nuria Fernandez madrildarra atzean utzi ostean. Gizonezkoen kategorian, berriz, sorpresatxoan egon zen Hipodromoan: Sadik Mikhou ez zen faborito nagusia, baina merezimendu osoz irabazi du lasterketa.

Helduen lasterketak hasi aurretik, gaztetxoak aritu dira lasterka Hipodromoan, goiz goizetik: juniorretatik hasi eta benjaminetaraino. Tartean, herritar gazte ugari. Ordurako, zale dezente zeuden harmailetan eta inguruetan.

## Azken metroetara arte lehian

Emakumezkoen lasterketa emozioz beterikoa izan zen. Hasieratik Bontu Rebitu (Bahrein), Nuria Fernandez

(Madril), Roxana Bircak (Errumania) eta Elena Loyok (Araba) osatutako laukoteak agindu zuen 8.600 metroko lasterketan. Handik gutxira, aurreneko hiruek zertxobait atzean utzi zuten Loyo; Bircak markatu zuen erritmoa.

Helmugaratzeko kilometro eta zertxobait gehiago falta zirenean, ordea, Birca atzean geratu eta Rebitu eta Fernandez artekoa izan zen lehia. Proba bukatzeko behar baino distantzia gutxiago geratzen zitzaioela usteta, Nuria Fernandezek erritmoa igo zuen, baina berehala jabetu zen gaizkiulertuaz, eta Rebituk hori baliatu zuen helmugara bakarrik iristeko, segundo gutxi batzuegatik besterik izan ez

**KROSAREN HISTORIAN INOIZ EZ, BAINA BI KATEGORIAN IRABAZI DUTE AURTEN BAHREINGO ATLETEK**

bazen ere. 29:18ko denbora egin zuen Bahreindarrak.

Rebitu, Fernandez eta Birca igo ziren podiumera.

## Mikhou, azkarrena

Faborito nagusia bahreindarra zen gizonezkoetan ere, baina ez Sadik Mikhou, bere herrikide Birhanu Balew baizik. Bukaeran podiumaren maila gorenera igo zena, ordea, Mikhou izan zen. Hasi eta buka berak agindu zuen proban. Hasierako multzotxo hainbat atletek osatu zuten: Mikhouk, Balewk, Tafese Sebokak (Ethiopia), El Hassan Oubaddik (Maroko), Ivan Fernandezek (Araba) eta Olivier Irabarutak (Burundi). Kilometroak pasa ahala, ordea, dezente murriztu zen: bi bahreindarrak lehian, eta handik gutxira Seboka eta Irabaruta.

Balewk ezin izan zion eutsi Mikhouren erritmoari, eta azken hori nagusitu zen, 30:01eko denbora eginda. Balewk eta Irabarutak osatu zuten podiuma.



16 urtez azpiko Beltzak taldea Michelinen aritu zen larunbatean. TXINTXARRI

## Harrobiko Beltzak taldeen erakustaldia Michelinen

Erraztasunez irabazi zuten 14, 16 eta 18 urtez azpiko taldeek. Michelinen jokatu zuten guztiek larunbatean.

## Iñigo Gonzalez

Zaleek ez dezatela izan dudarik: herriko errugbiak etorkizuna dauka. Horrela erakutsi zuten beste asteburu batez harrobiko Beltzak errugbi taldeek, larunbat goizean zehar Michelingo zelaian jokaturako neurketetan.

16 urtez azpiko gazteak izan ziren lehenengoak. Irungo Txingudi BRTrekin neurtu zituzten indarrak, eta 132-0 nagusitu ziren. Ondoren, 18 urtez azpikoek eta Atletico San Sebastianek jokatu zuten. Etxekoek errugbi oso dinamikoa jokatu eta 121-5 irabazi zuten.

Goiza biribiltzeko, 14 urtez azpiko gaztetxoek 40-17 garaitu zuten La Rioja taldea.

## Herritarrek Ohorezko B mailan

Babyauto Zarautzek ezin izan zuten UBU Colina Burgos kategoriako liderra mendean hartu Zarauzko Asti zelaian jokaturako norgehiagokan. Xabier eta Ander Rekondo eta David Vega lasarteoriarrek jokatu zuten etxekoekin.

Erritmoa oso bizia izan zen partiduan zehar. Burgos irabazi zuen, 12-18. Xabier Rekondok entsegu bat egin zuen.



IPAR MARTXA

## Urteko lehen irteera, Hendaiara

Ipar Martxa taldeko zenbait kide animatu ziren iragan larunbatean makilak hartu eta Hendaiara joatera. 08:30ean tren hartu, Ficoban jaitsi eta bertatik abiatu ziren Hendaiarantz. Otsailerako ere prest daukate beste hitzordu bat: 19an, igandez, Arditurri-Ergoianera joango dira. 08:20ean geratuko dira, Euskotren geltokian. Ogitartekoa eraman beharko dute.



## ZORION AGURRAK



**Clara**  
Zorionak txapelduna!  
Clara ondo pasa ezazu zure hamargarren urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Zure gurasoen eta anaiaren partez besarkada sendo bat.



**Mikel**  
Zorionak maitia. Segi horrela! Muxu handi bat zure familiaren partetik.



**Oier**  
Zorionak guapeton!! Ondo ondo pasa zure 7. urtebetetzean!! Muxu erraldoi bat zure familiaren partetik.



**Paula**  
Zorionak printzesa!! 9 muxu potolo familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu!



**Jon**  
Zorionak zure 6. urtebetetzean. Ondo pasa eta muxu haundi bat etxekoan partetik.



**Jon**  
10 mila muxu potoloakkkkkkk..... Familiaren partetik.



**Erika**  
Zorionak Erika!! Nork esango luke, 32 urte bete eta oraindik ere handitzen!!! Gero txin-txin e!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

## Internet

Txintxarri.eus-en  
[txintxarri.eus/zorionagurra](http://txintxarri.eus/zorionagurra) eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.  
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean..

## Posta elektronikoa

Mezua bidali  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

*Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.  
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.*

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 03	GIL
Larunbata, 04	URBISTONDO
Igandea, 05	URBISTONDO
Astelehena, 06	GANDARIAS
Asteartea, 07	ORUE
Asteazkena, 08	DE MIGUEL
Osteguna, 09	LASA

## EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

URRUTIA: Etxeberri auzoa 1, Hermani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2016ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.  
Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofjipuzkoa.com](http://www.cofjipuzkoa.com)).

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLEDGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKIJONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 943 372 863

## LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAK: 943 288 888  
SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

## HHI-EPAn matrikula zabalik

Matrikulazioa egiteko epea zabaldu dute herriko Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zentroan. Bulegoko ordutegian egin beharko da matrikulazioa, astelehenetik ostegunera 10:00etatik 12:00tara eta ostiralean 10:00etatik 12:00tara.

**Herriak zure zerbitzuak ezagutzea nahi duzu?**

...

Txintxarri publikitatea:  
646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)



ERRESERBAK: 943 36 50 29/654 80 61 63 • Solla-Enea Baserria, Zabaleta auzoa 20160 LASARTE-ORIA

**Larunbatean irekitzen dugu!**  
(Otsailak 4)

*Egin TXOTX herrian!*

Igande gaua eta astelehena itxita  
Astean zehar afariak erreserbarekin



## AZOKA TXIKIA

### 1. ETXEBIZITZA

**101. SALDU**  
Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazio gehiago eskuratzeko deitu 663 515 265 zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

Zarautzen apartamentua alokatzen da. Garajea dauka. Luzerako alokairuan pentsatzen da. Informazio gehiagorako 648 614 769.

Bi plazara garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalena. 686 674 552.

### 104. ERRENTAN HARTU

Alokairua merke duen pisu bila ari naiz, ahal balitz Lasarte-Orian. 637384110

### 2. LANA

**202. ESKAERA**  
Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak, pertsona

adinduak edo haurrak zaintzeko. 643 620 254, Yaline.

Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko gauz. 619 803 199.

Emakumea eskaintzen da umeak edo pertsona adinduak zaintzeko. 675 830 206. Johana.

Haur Hezkuntza titulua duen neska eskaintzen da


umeak zaintzeko. 695 753 292. Maria

Emakume arduratsua eskaintzen da lanaldi erdiz helduak zaintzeko. Arreta Soziosanitarioan tituluduna. 673 381 470

### 402. EMAN

Euskara edo ingelesa irakasten dut. Ekonomikoa. 600 766 068

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

\*Eskola egunetan

## JAIOTAKOAK

**Haritz Salas Pajuelo.** Urtarrilaren 26an.

## HILDAKOAK


**Iñaki Beraza Zangitu.** Otsailaren 2an, 67 urte.  
**Francisco Garcia Enríquez.** Otsailaren 2an, 73 urte.  
**Dionisio Carro Caamaño.** Urtarrilaren 30ean, 76 urte.  
**Maria Jesus Ormazabal Martin.** Urtarrilaren 28an, 72 urte.  
**Isidoro Avila Barriga.** Urtarrilaren 26an, 57 urte.

## ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

## SUDOKUA



txintxarri

www.txintxarri.eus

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Erredakzioa

Maidier Azurmendi,  
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,  
Martin Vicioso.

### Publizitatea

Arantxi Zulaika.

### Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maidier Segurrola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Edu Galardi.

### Informatikoa

Xabier Amadoz.

### Administrataria

Arkaitz Urdapilleta.

### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua:

SS-513/94  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALAK

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 03

**LASARTE-ORIA Bertso Afaria**  
Gipuzkoako herriartekoa. Herriko bertsolariak Aiakoen kontra ariko dira. Patxi Etxeberria, Ane Labaka, Unai Muñoa, Axier Azpiroz eta Zigor Iriondo arituko dira bertsoan, eta JoxeKruz Labakarekin batera, Imanol Lizardi arituko da epaile lanetan. Uxue Loinaz izango da gai-jartzailea, eta Lierni Rekondo arduraduna. Aurrez txartelak erosi behar dira, Jalgi eta Ilargi tabernetan eskuragarri. **Arrieskalleta, 20:30etan.**

**ANDOAIN Kontzertu didaktikoa**  
Kontzertu didaktikoa. S. Joplín konpositorearen heriotzaren mendeurrena gogoraraziz, bere bizitza eta obrak uzartuko dira. Piano Jaialdiaren baitako ekintza da. **Bastero, 18:00etan.**

## LARUNBATA 04

**LASARTE-ORIA Dantza**  
Ertza dantza konpainiaren 'Hariak' ikuskizunaz gozatu ahal izango da. Testua Harkaitz Cano idazlearena da. Euskaraz. Sarrera 5,50 euro. **Manuel Lekuona, 20:00etan.**

**LASARTE-ORIA Santa Ageda**  
Herriko hainbat talde aterako dira santa eskean. Zabaletako bizilagunak auzoan, Erketz dantza taldekoak eta Bertso eskolako kideak Xumelakoekin herriko kaleetan barrena. **Herrian zehar.**

**HERNANI Haur Antzerkia**  
'Kubik' antzezlan 1 eta 3 urte artekoentzat. Jolasgunean, kolore, forma eta bolumenak proiektatzen dituzte bi antzezlek, hasieran bakarrik dagoen zuriaren gainean sentimenezko unibertsoa marrazteko. Irudiak sortzeko eta begiratzeko plazera deskubritzen dute elkarrekin, eta aldi berean, ikusle txikiak bidaiatzera, jolastera, deskubritzera, irudikatzen eta amets egitera gonbidatzen dituzte. Haiekin, dena mugitzen da, dena aldatzen da!  
**Biteri, 11:00etan.**



### LASARTE-ORIA Dantza ikuskizuna.

Ertza dantza konpainiak 'Hariak' lana taularatuko du. Istant batean bizitza osoa sostengatzen zioten hariak hautsi eta hutsetik hasi beharrean aurkitu den jendearen esperientziez osatutako antzezlan da. Harkaitz Cano eta Joseba Sarrionandiaren testuak. **Larunbata 04, Manuel Lekuona, 20:00etan.**

**HERNANI Kaldereroak**  
Kaldereroen konpartsaren irteera. **Elur Txori Elkarte, 21:00etan.**

## IGANDEA 05

**LASARTE-ORIA Bazkaria**  
Sasoetako Burunzpe elkarteak bazkari multikulturala antolatuko du. Herrialde ezberdinetako jakiak, karaokea eta haur jolasak izango dira. **Sasoeta, 13:30etik.**

**ANDOAIN XII. Piano Jaialdia**  
Larunbata eta igandean zehar piano jaialdia izango da. Herriko ikasleek ere parte hartuko dute. Saioak goiz eta arratsaldean izango dira. **Bastero.**

**ASTIGARRAGA Plaza dantza**  
Muxikoak zuzeneko musikarekin, dantza gustuko duen haur, heldu zein gazteentzat. **J.Barandiaran plaza, 12:30etan.**

**URNIETA Antzerki**  
'Por los pelos' antzezlan PIXKOL@ (BIS) antzerki amateurreko taldearen eskutik. Sarrera 5 euro. **Sarobe, 19:30etan.**

## ASTELEHENA 06

**LASARTE-ORIA Itsaspeko**

**Nazioarteko IV. zikloa**  
Danok Kide elkarteak Udalarekin antolatuta. Jabi Atutxaren 'Solopecios memorias sumergidas' dokumental laburra izango da, jarraian, Monica Sagreraren 'El Oasis rojo', Alberto Santolariaren '¿Que le ha pasado al Gelidium?' filma eskainiko dute eta Manuel Gonzalezen 'Criaturas olvidadas' ikus-entzunezkoak emango dio amaiera saioari. Doan. **Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.**

## ASTEARTEA 07

**LASARTE-ORIA Dantza**  
Muxikoen saio irekia Euskal inauterietako dantzak ikasteko. Bi saio egingo dira, bigarrena asteartea 14an. Doan. **Sasoetako gimnasioa, 20:00etan.**

## ASTEAZKENA 08

**LASARTE-ORIA Ikastaroa**  
Euskal Inauterietako jantzia (Txantxo jantzia) prestatzeko ikastaroa irekia guraso eta haurrentzat Ttakunek antolatuta. Bigarren saioa 11n egingo da goizeko ordutegian. **Anbulatorioko 2. solairua, 17:30etik.**

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Orm elurretako erresuman**  
Igandea: 17:00.

**Underworld guerras de sangre**  
Igandea: 19:30.

**100 metros**  
Igandea: 19:30.

#### USURBIL

#### URBIL

#### ¡Canta!

Ostirala: 16:30, 18:45.  
Larunbata: 16:30, 18:45.  
Igandea: 16:30, 18:45.

#### Ballerina

Ostirala: 16:15, 17:00, 18:00, 19:00.  
Larunbata: 16:15, 17:00, 18:00, 19:00.  
Igandea: 16:15, 17:00, 18:00, 19:00.

**Contratiempo**  
Ostirala: 20:00.  
Larunbata: 20:00.  
Igandea: 20:00.

**Figuras ocultas**  
Ostirala: 16:00, 21:00.  
Larunbata: 16:00, 21:00.

**La La Land**  
Ostirala: 16:15, 18:40, 21:00, 00:00.  
Larunbata: 16:15, 18:40, 21:00, 00:00.  
Igandea: 16:15, 18:40, 21:00, 00:00.

**Múltiple**  
Ostirala: 15:50, 18:10, 20:00, 22:30, 23:40.  
Larunbata: 15:50, 18:10, 20:00, 22:30, 23:40.

18:40, 21:00.

**Lion**  
Ostirala: 18:30, 21:15, 23:45.  
Larunbata: 18:30, 21:15.  
Igandea: 18:30, 21:15.

**Manchester frente al mar**  
Ostirala: 16:30, 19:00, 21:45, 00:00.  
Larunbata: 16:30, 19:00, 21:45, 00:00.  
Igandea: 16:30, 19:00, 21:45, 00:00.

**XXX: Reactivated**  
Ostirala: 22:25, 00:25.  
Larunbata: 22:25, 00:25.  
Igandea: 22:25, 00:25.

Igandea: 15:50, 18:10, 20:00, 22:30.

**Resident Evil: Capítulo Final**  
Ostirala: 15:50, 18:00, 20:30, 22:30, 00:30.  
Larunbata: 15:50, 18:00, 20:30, 22:30, 00:30.

**Vivir de noche**  
Ostirala: 21:00, 23:35.  
Larunbata: 21:00, 23:35.  
Igandea: 21:00, 23:35.

**XXX: Reactivated**  
Ostirala: 22:25, 00:25.  
Larunbata: 22:25, 00:25.  
Igandea: 22:25, 00:25.



### LABURPENA

#### Orm elurretako erresuman

**Zuz.:** Alexey Tsitsilin. **Herr.:** Errusia.(2016). **Iraupena:** 80 minutu. **Hiz.:** Euskara

## Heroi izateko bidea

Elurretako Erregina garaitua izan da, eta hotz-egunak amaituta, trols-ak bakean eta askatasunean bizi dira. Orm trol horietako bat da; baina atsekabetuta dago, erregina maltzurra garaitzeko bera funtsezkoa izan den arren, merezitako aitortzarik jaso ez duelako.

Orm-ek heroia izan nahi du, eta garaipenaren kontakizuna gezur txikiakin puzten hasten da eta bere burua eskaintzen du printzesa erreinutik libratzeko eta, bide batez, inoiz izan ez den heroia bihurtzeko. Elurretan barrena abiatzen da lagunekin abentura arriskutsuak bizitzera.

Bidaian ohartuko da ordea, heroia izatea baino

garrantzitsuagoa dela bere buruarekin eta lagunartearrekin zintzo jokatzea, baita merezi duten pertsonen alde borrokatzea ere.

Eusko Jaurilaritzen 'Zinema Euskaraz' programaren baitako filmetako bat da. Egitasmo honekin, euskal balio zinematografikoak sustatu, euskararen erabilera komunikazio kultural gisa erabili eta aisialdi arloan normalizazioa bultzatuko duen filma sorta eskura jartzea du helburu.

'ORM Elurretako Erresuman' (The Snow Queen 2)film errusiarra aurten diruz laguntzen den lehenengo filma da.



# DBHko IKASLEEN ONARPENA | 2017-2018

Epea: Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

[www.oriarte.eus](http://www.oriarte.eus)

## ORIANTE BHI

### Institutu bat, bi eraikin

#### 1. eta 2. DBH



##### Landaberri eraikina

Pintore kalea, 2  
Tel.: 943372890  
Landaberribhi@outlook.com  
[www.landaberri.net](http://www.landaberri.net)

##### ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera  
08:30etatik 11:30etara  
Astelehena, astearta eta ostegunean arratsaldez  
14:30etatik 16:00etara

**1. DBHrako BILERAK:**  
Otsailaren 8an arratsaldeko 19:00etan.

#### 3. eta 4. DBH



##### Larrekoetxe eraikina

Buenos Aires aldapa, 1  
Tel.: 943372852 | 943372277  
lasarte-bhi@instilasarte.net  
[www.instilasarte.net](http://www.instilasarte.net)

##### ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera  
09:00etatik 13:30etara  
Astelehenetik ostegunera arratsaldez  
14:30etatik 16:30etara

- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituena.
- Aniztasunaren trataera: Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Programa(HBSP), Pedagogo Terapeutak (PT), Aniztasun Curricularreko taldeak (AC), Bidelaguna(eskolaz kanpoko laguntza), laguntzako irakasleak, Hizkuntza Indartzeko Proiektuko Irakaslea(HIPI) eta Orientatzaileak.
- Teknologia berrien erabilera. Baliabide digitalak eta ikasgela guzietan sareko konexioa.
- Atzerriko bigarren hizkuntza aukeran 4. DBHtik aurrera.
- Jangela zerbitzua.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: Kirolak, dantza, antzerkia...



Landaberri eraikina



Larrekoetxe eraikina